


**KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA.** Nyiragongo sumendia ematu arren, su-errekak aurrera jarraitu du

# Gomatik ihes egin duten 500.000 lagunak sorostea da premiazko lana

Giza-laguntzarako erakundeek ziurtatu dute janaria, ura eta aterpeak garaiz iritsiko direla



PEDRO UGARTE / EPA  
Goma hiriko herritarrak, Nyiragongo sumendiak isuriko labatik ihesi, atzo.

## LAGUNTZA

### Europako hainbat estatuk laguntza emango dute

Frantziak 300.000 euroko premiazko laguntza bat emango duela jakinarazi zuen atzo Atzerri ministerioak. «Nyiragongo sumendiaren iratzartzeak Goma hiriko hainbat auzo suntsitu ditu, eta hauetatik alde egin beharrean egon diren dozenaka mila iheslariei lehendabiziko laguntza bat eman nahi diegu», azaldu zuen Quai d'Orsayk plazaratutako agiriak.


Frantzia ez zen, ordea, premiazko laguntza emate honetan lehendabizikoa izan, Alemaniak ere 300.000 euroko diruketa bat ematea erabaki baitu herenegundik. Belgikak, berriz —Kongo bere kolonietatik izan zuen— 1,25 milioi euroko diru laguntza bat helaraziko duela iragarri zuen ostiralean bertan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Joan den ostegunean ustekabean berpiztu zen Nyiragongo sumendiaren botakinek osatutako su-errekak aurrera jarraitu zuen atzo, nahiz eta garmendia- ren kealdia ematu zen. Kongo-ko Errepublika Demokratikoaren ekialdean, Ruandarekiko mugatik oso hurbil kokatua den Goma hiri handia ekialdetik mendebaldera zeharkatu zuen bi metroko altuera eta 40 metroko zabalera zeukan su-errekak, dena txikituta bere ibilbidetan. Nyiragongo sumendia Gomatik 20 kilometro iparraldera dago, eta bertatik jalgitako su botakinak Kivu aintzirako uretan itotzen aritu dira ostegunaz geroztik.

Goma bete-bete harrapatu duen su-errekak honi ihesean, 500.000 herritar inguru euren etxeak bat-batean uzterat behartuta izan dira, eta ekialderat, Ruandako Gisenyi hirirat edo mendebalderat, Kongoko Errepublika Demokratikoko Bukavu hiriaren alderat, itzuri egin dute. Ihes egin beharrean gertatu den jende uholde izugarri honi laguntza ematea da orduz geroztik nazioarteko giza la-

## Nyiragongoko sumendia piztuta



guntzan diharduten erakunde- en premiazko grina eta eginkizuna.

Hala, Kinshasako agintariak eta erakunde hauetako ardudunek bilera egin zuten atzo, sorospen hauek lehenbailehen antolatzeke eta indarrean jartzeko. Etxebizitzetatik ezer hartzeko denborarik izan gabe ihes egin behar izan duen jende uholde honentzako behar

adina elikadura eta ur garaiz iritsiko direla ziurtatu zuten atzo Nazio Batuen Erakunde-ko sorospen erakundeetako eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeko ardudunek.

### Gerrilla nagusi den eskualdea

Hauen iritzian, janaria baino gehiago edateko ona den uraren kontua da arazo larriena, kezkarik baitute iheslari asko

Kivu aintzirako ura edaten hasiko diren, hau, aldiz, sumendiaren botakinez kutsatuta delarik. Giza-laguntzarako erakundeek ere iheslarientzako eremuak jarri nahi lituzkete Gisenyitik 20 kilometrora kokatutako bi gunetan.

Alabaina, egitasmo hau korapilatsua egiten duen arazoa da Kongoko Errepublika Demokratikoak pairatzen duen gerra zibila. Ezen, eskualde hau RCD Demokraziarentzako Kongoar Elkarretaratzearen kontrolpean da. RCDko idazkari nagusi Azarias Ruberwak ere laguntzarako dei samina egin zion nazioarteko komunitateari. «Sekulako hondamendia dago; kalteak ikaragarriak dira Goman, hainbat auzotegi osorik suntsituta geratu dira; elikadura, ur, sendagai, aterpe behar gorrian gaude, eta oraingoz Ruandak soilik laguntzen gaitu», erran zuen Ruberwak.

**KOLONBIA.** Gaur amaitzekoa da Pastrana presidenteak Bogotaren eta gerrillaren artean menia hitzartzeko ezarritako epea

Agentziak | BOGOTA

## Gobernuari eta FARCi su-etena aldi berean aldarrikatzeko eskatu diete GKEek

Convergencia Paz Colombia (CPC) kolektiboan bildutako 350 gobernuz kanpoko erakunde-ekin sinatutako agiri batean, Bogotako Gobernuari eta FARC Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak gerrillari proposatu zieten atzo bi aldeek une berean su-etena bat iragar dezaten, bikerako prozesu bat lasaitasunean aurrera eramateko egutegi baten lehen urrats bezala.

Gobernuz kanpoko erakunde-ekin Pastranaren gobernuari eta FARCeko agintaritzari helarazitako proposamenak zehazten du, halaber, egutegi zehatz bat hitzartu beharko luketela bi aldeek bake elkarriketetan au-

rrera egiteko gisan, eta erakunde paramilitarren erasoak baitzepadaz geldiarazi behar liratekeela.

CPCk egindako proposamenaren arabera, bi aldeek hitzartu behar lukete berehalako gelditze bat daramatzaten erasoaldietan, eta urtarrilaren 20a eta apirilaren 20a artean menia bat errespetatu. Su-etena hau gaur bertan indarrean jarri behar litzateke, hain zuzen ere Andres Pastrana presidenteak akordioa lortzeko ezarritako epea bukatzen den egunean. Ados jartzen ez badira, zonalde neu-

trala utzi beharko du FARC gerrillak.

Pastranaren gobernuak 1998an FARCen eskuko utzi zuen 42.000 kilometro koadroko esparru desmilitarizatu bat. Alabaina, bake prozesurako elkarriketak blokeatu egin ziren 2001eko irailean, eta gatazka areagotu egin zen urtarrilaren 9an. Egun hartan, Camillo Gomez bake prozesuarentzako goi-arduradunak FARCeko agintaritzari jakinarazi zion 48 orduko epea zeukatela euren esku utzitako lurralde desmilitarizatutik alde

egiteko. Nazioarteko komunitatearen bitartekaritzari esker, berriz, epea luzatzea onartu zuen gobernuak.

Orduz geroztik, Kolonbiako Armadaren eta FARCen arteko borrokaldiak egunerokoak bilakatu dira, nahiz eta, bi aldeetako ordezkariak biltzen dituen Elkarriketarako Mahai Nazionala bildu den, nazioarteko gerizapean.

### Gutxienez, 12 hil atzo

Atzo bertan ere, odol isurketak izan ziren, Kolonbiako Armadak iragarri baitzuen gutxienez

FARCeko sei gerrillari hil zituela Kolonbia erdialdean, hegoaldean eta hego-ekialdean gertatutako borrokaldietan. Hiru soldaduk ere bizia galdu zuten borroka horietan, eta beste sei zaurituta ziren FARCen bide tratatze bati oldar egite batean.

Bestalde, bakearentzako tokiko batzorde baten bultzatzaile Arley Arias apaiza eta harekin batera zihoazen Carlos Perez bere laguntzailea zein Carlos Ariztizabal izeneko hirugarren lagun bat erailak izan ziren Florencia eskualdean, Caldasko departamenduan. Arias apaiza eta beste bi lagunak tiroka hil zituzten aurpegiak ezkutatuta zituzten erasotzaileek, ustez, paramilitar talde batekoak.